

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2008	R14/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>SZ: akta bakarreko erregimeneko ikuskaritza-jardueretatik eratorritako zenbatekoa Administrazioen artean banatzea</i>

R14/2011 ebazpena

27/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka planteatutako gatazka honen inguruan: 1997tik 1999ra bitarteko sozietateen gaineko zergarengatik Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak “AAAAAA, SA” entitateari (IFZ:) irekitako akta bakarretan Gipuzkoako Foru Ogasunaren alde aitortzen den 66.401,90 euroko zenbatekoa transferitzea.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2008ko maiatzaren 12an planteatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arbitraje Batzordean egun horretan erregistratu zen idatzia dela medio. Idatzi horretatik eta hari erantsitako agirietatik jarraian laburtzen diren aurrekariak jaso dira:

1.a 2004ko otsailaren 5ean, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Ikuskaritza Bulego Nazionalak adostasun akta bat ireki zion “AAAAAA”, SA” entitateari (IFK:), 1997tik 1999ra bitarteko sozietateen gaineko zergarengatik, bi ekitaldi horiek barne.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2008	R14/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>SZ: akta bakarreko erregimeneko ikuskaritza-jardueretatik eratorritako zenbatekoa Administrazioen artean banatzea</i>

2.a Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzak 2005eko maiatzaren 3an egindako txostenean adierazten denez, Ikuskaritza Bulego Nazionalak akta horren indarrez “AAAAAA, SA” entitatearen zerga egoera zerga administrazio guztiekiko dagoeneko erregularizatuta, akta horretatik eratoritzen den zerga zorretik Gipuzkoari 66.401,90 euro dagozkie.

3.a Martxoaren 13ko 271/2008 Foru Aginduaren bitartez, 66.401,90 euroko zenbateko hori kobratzeko eskumenean inhibitzeko eskatu zitzaion Estatuko Administrazioari. Eskumen hori Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola eta, horregatik, zenbateko hori Estatuko Administrazioak GFARI transferitu behar diola adierazten da foru aginduan.

4.a 2008ko apirilaren 16ko idatzian, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak Euskadin duen Ordezkarri Bereziak adierazi zuen Foru Ogasunak beretzat erreklamatzeko duen kobrantza eskumenaren jarduketara 2006ko urtarrilaren 1a baino lehen irekitako akta bakarrei dagokiela, eta kobratzeko eskumena ZAEARI zegokiola.

5.a 2008ko maiatzaren 6ko bileran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arbitraje Batzordeari aurkeztea aurrekari horietatik eratorritako gatazka.

2. Arbitraje Batzordeak 2010eko urriaren 1ean onartu zuen tramitera Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazka, eta Estatuko Administrazioari epe bat eman zion alegazioak aurkezteko, espedienteak ikusgai jarri eta gero.

3. ZAEAK 2009ko apirilaren 1ean aurkeztu zituen bere alegazioak, bertako zuzendari nagusiak izenpetutako idatziaren bitartez, eta hurrengo egunean Arbitraje Batzorde honetan erregistratu ziren. Foru Aldundiak 2009ko apirilaren 6an aurkeztu zituen bere alegazioak, Arbitraje Batzorde honetan bi egun geroago erregistratutako idatzia dela medio. “AAAAAA, SA” entitateak ez du alegaziorik aurkeztu.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2008	R14/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>SZ: akta bakarreko erregimeneko ikuskaritza-jardueretatik eratorritako zenbatekoa Administrazioen artean banatzea</i>

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Bere alegazioetan, ZAEAk berretsi egiten ditu adierazitako alderdi gehienak, eta adierazten duenez “izatezko aurrekariak eta horietan aipatzen den dokumentazioa aztertuta, ZAEaren asmoa da erreklamatzeko den zenbatekoa Gipuzkoako Foru Ogasunari transferitzea. Transferentzia hori 2008ko ekitaldi honetan egingo da akta bakarren hurrengo konpentsazioan.”

2. Aurrerago dioenez, “ZAEAk Gipuzkoako Foru Ogasunaren asmoari amore ematea denez abiapuntua, agerian jartzen da ez dagoela gatazkarik eta Arbitraje Batzordeak ez duela eskumenik sortutako auziaren mamia aztertu eta ebazteko.”

3. ZAEAk ez du eztabaidan jartzen Gipuzkoako Foru Aldundiak erreklamatzeko ari den zenbatekoa jasotzeko duen eskubidea; aitzitik, esplizituki aitortzen dio eskubide hori. ZAEAk alegatzen duena da Arbitraje Batzorde hau ez dela eskuduna GFaren asmoa ezagutzeko, Estatuko Agentziaren arabera “ez baita gertatu Arbitraje Batzordearen araudian jasota dauden egoeretako bat ere hura eskudun izan dadin”. Hau da, Gipuzkoako Foru Ogasunak ez du desadostasunik agertu ez aktetan egotzen zaion likidazio portzentajearekiko eta ez akta horietan konexio puntuak izan duten aplikazioarekiko. Inolako zalantzarik gabe zor zaion zenbateko bat bere alde ordaintzeko baino ez da exijitzen ari GFA”. ZAEaren ustez, kasu honetan ez gaude Ekonomia Itunaren 65. artikulua Arbitraje Batzordeari aitortzen dizkion eskumen kasuetan.

4. Arbitraje Batzordearen eskumen ezari buruzko ZAEaren alegazioa modu egokian aztertzeko, komeni da gogoan izatea zein den eztabaida ekarri duen auzia, alegia, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak diru kopuru bat transferitzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde.

Zerga Administrazioaren Estatu Agentzia GFaren asmoaren aurka agertu da tazituki, ez baitio transferentzia hori egin, Foru Administrazioak eskaera hori behin eta berriz egin arren. Eta ezezko tazitu horrek sorrarazi duen gatazka bete-betean sartzen da Arbitraje Batzorde honen eskumenetan. Izan ere, eskumen horiek ez dira mugatzen Ekonomia Itunean ezarrita dauden lotura puntuak interpretatzera, bere

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2008	R14/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>SZ: akta bakarreko erregimeneko ikuskaritza-jardueretatik eratorritako zenbatekoa Administrazioen artean banatzea</i>

eginkizunetako bat baita “banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.”

Horrela sortutako gatazka ez da desagertzen arrazoia, mamian, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola aitortzeagatik –halaxe aitortzen du ZAEAk Aldundiak planteatutako gatazkari erantzun dionean–; ZAEAk zor eta onartzen duen zenbatekoa ordaindu arte hortxe segituko du gatazkak. GFaren eskubidea behin aitortuta, zentzuzkoena zen ZAEAk berehala ordaintzea erreklamatzeko zitzaien zenbatekoa, eta prozedura honetan Foru Aldundiaren asmoari amore ematea. Horrelakorik gertatu ez denez, Arbitraje Batzordeak eskumen osoa du oraindik Ekonomia Ituna aplikatze aldera Zuzenbidearen arabera bidezkoak diren deklarazioak egiteko.

5. ZAEAk aitortzen duenez, eztabaida ez da Foru Ogasunari aktetan egozten zaion likidazio portzentajea, ezta haietan konexio puntuek duten aplikazioa ere. Horregatik, erreklamatzeko ari den zenbatekoa jasotzeko eskubidea aitortu behar zaio Foru Aldundiari eta, aldi berean, zilegi da erabakitzea ordainketa hori egin behar zaiola. Gainera, eta berriro diogu, ZAEAk ez du zalantzan jarri zenbateko hori zor ez zaionik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

- 1.a Adieraztea Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena duela Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Ikuskaritza Bulego Nazionalak “AAAAA”, SA” entitateari (IFK:) 1997tik 1999ra bitarteko sozietateen gaineko zergarengatik irekitako adostasun aktaren ondorioz agerian jarri zen zerga zorra kobratzeko (66.401,90 euro guztira).
- 2.a Ebazpen hau betetzeko, ZAEAk berehala transferitu beharko dio zenbateko hori Gipuzkoako Foru Aldundiari.